

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

82/2019 Foru Agindua, otsailaren 15ekoa, onesten duena Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorraren zerbitzura karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorrak, 2017ko eta 2018ko enplegu publikoaren eskaintzenak

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 12ko 750/2017 Erabakiaren bidez, onespena eman zitzaion Arabako Foru Aldundiaren 2017rako Administrazio Orokorraren enplegu publikoaren eskaintzari, zeinetan jasota baitaude dagozkien hautaprobei bidez hornitu beharko diren plazak.

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 11ko 695/2018 Erabakiaren bidez, onespena eman zitzaion Arabako Foru Aldundiaren 2018rako Administrazio Orokorraren enplegu publikoaren eskaintzari, zeinetan jasota baitaude dagozkien hautaprobei bidez hornitu beharko diren plazak.

Hautaketa prozesuen kudeaketan beharrezkoak diren ekonomia, eraginkortasun eta efizientzia arrazoiengatik, gomendatzen da batera egitea 2017 eta 2018rako enplegu publikoaren eskaintzak.

Bat etorri lege xedapen hauetan ezarritakoarekin: uztailaren 6ko 6/1989 Legea, euskal funtzio publikoarena, 23. artikulua eta II. tituluko IV. kapitulua, langileak hautatzearen gainean; Diputatu Nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretua, Foru Aldundiaren sailak finkatzen dituena; Foru Gobernu Kontseiluaren 154/1993 uztailaren 30eko Foru Dekretua, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezartzen dituena, eta otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretua, funtzio publikoaren arloko eskumena duen sailaren egitura organiko eta funtzionala onartzen duena.

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorraren zerbitzura karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorreari, enplegu publikoaren 2017ko eta 2018ko eskaintzenak izan eta foru agindu honen eranskin doazenei.

Bigarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organo berean, bat etorri uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan xedatutakoarekin -urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatutakoarekin lotuta.

Gasteiz, 2019ko otsailaren 15a

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR



ERANSKINA

Oinarri orokorrak, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorraren zerbitzura karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa prozesuak arautuko dituztenak eta hauexetan jasotzen direnak: Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 12ko 750/2017 eta abenduaren 11ko 695/2018 erabakiak, zeinaren bidez onesten baitira Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorraren enplegu publikoaren 2017ko eta 2018rako eskaintzak.

1. XEDEA

1.1 Oinarri hauen xedea da arau orokorrak ezartzea hornitzeko Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko eskala, azpieskala eta klaseetako plazak, zeinak dagozkien oinarri espezifikoean adieraziko baitira.

1.2 Hautaprobetarako dei egiten da Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioen 91 plaza huts betetzeko, honela banatuta: 82 plaza sistema irekiaren bidez betetzeko, eta 9 plaza barne sustapeneko sistemaren bidez betetzeko.

Parte hartzeko edo sartzeko bi sistema aurreikusten dira, eduki honekin:

1) Sistema irekia:

- Txanda orokorra.
- Desgaituentzat gordetako kupoak.

2) Barne sustapeneko sistema:

- Txanda orokorra.
- Desgaituentzat gordetako kupoak.

Desgaituentzako barne sustapenerako gordeta egonik betetzen ez diren plazak barne sustapeneko txanda orokorrean eskaintako plazei gehituko zaizkie.

Barne sustapeneko txanda orokorrerako gordeta egonik betetzen ez diren plazak sistema irekiko txanda orokorreko gainerako plazei gehituko zaizkie, betiere giza baliabideak berritzatzeko tasatik eratorritako gehienezko plazen mugaren barruan deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoean ezarritako moduan, baldin eta ez badira aparteko deialdietan atera; izan ere, aparteko deialdietan atera badira, hutsik geratutako plazak ez zaizkie inola ere gehituko sistema irekian eskaintakoei.

Desgaituentzako sistema irekirako gordeta egonik betetzen ez diren plazak sistema irekiko txanda orokorrean eskaintako plazei gehituko zaizkie.

Baldin eta gordetako eta desgaituek bete dituzten plazen kopurua ez bada iristen deialdian jasoriko plazen ehuneko hiruko tasara, betetzen ez diren plazak hurrengo eskaintzako ehuneko zazpiko kupoari gehituko zaizkie, ehuneko hamarreko mugarekin gehienez ere.

Ezarritako bi sarbide sistemetak bakoitzetik betetzeko gordetako plazak dira dagozkien oinarri espezifikoean agertzen direnak, enplegu publikoaren eskaintza onetsi zuen Foru Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren arabera.



Barne sustapeneko sistemaren bidez hautatzen diren izangaiei lehendik betetzen ari ziren lanpostuetan esleituiko zaie destinoa hala eskatzen badute, baldin eta bete beharrekoak badira eta lanpostu zerrendan ezarrita dauden betekizunak betetzen badituzte, eta horrela, destinoak hautaketa prozesuan lortutako puntuazioaren ordenan esleitzeko sistematik kanpo geratuko dira.

Desgaituren bat gordetako kupoan lehiatzen bada eta, dagozkion ariketak gainditu arren, plazarik lortzen ez badu, eta bere puntuazioa handiagoa bada parte hartzen duen sistema bereko txanda orokorreko beste izangai batzuek lortutakoa baino, bere puntuazio ordenaren arabera sartuko da txanda orokor horretan.

1.3 Hornitzeko betekizun jakin bat ezarrita duten lanpostuak ezingo dira inola ere hornitu hura betetzen dutela egiaztatu ez duten izangaiekin.

1.4 Deialdian jasoriko plazen kopurua handitu ahal izango da baldin eta onartzen bada 2019ko Enplegu Publikoko Eskaintza eskala, azpieskala eta klase bereko plazak barnean hartzen dituen, eskabideak aurkezteko beste epe bat ireki behar izan gabe. Horretarako, 10.2.2. oinarrian aipatzen den oposizio faseko lehenengo ariketarako, edo ariketa bakarrerako hala badagokio, deialdia argitaratu aurretik, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak txosten bat egingo du, non zehaztuko baita hornitu behar diren plaza hutsen kopurua, eta dagokion epaimahai kalifikatzaileari helaraziko dio.

2 BALDINTZA OROKORRAK

2.1 Izendapenak hautatutako pertsoneri Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izaera emango die, gai horretan indarrean dauden xedapenek adierazten dituzten eskubide eta betebeharrak guztiekin.

2.2 Zerbitzua emango den destinoa hautaketa prozesua amaitzen denean dauden eta deialdian jasoriko plazarik dagozkion lanpostu hutsen arabera izango da.

3 IZANGAIEN BETEKIZUNAK

3.1 Oinarri espezifikoaren deialdian jasoriko hautaprobetarako onartuak izateko eta, hala badagokio, haietan parte hartu ahal izateko, izangaiek, eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen, hautaketa prozesuak dirauen bitartean eta, hala badagokio, esleitzen zaien lanpostuak jabetzeko unera arte, betekizun hauek bete behar dituzte:

- a) Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea edukitzea, edo, bestela, Europar Batasunak egin eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunak aplikatzearen ondorioz, langileen zirkulazio askea onartuta daukan estaturen bateko nazionalitatea edukitzea.

Halaber, Europar Batasuneko estatuaren nazionalitatea dutenen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude, bai eta haien ondorengoek eta ezkontideen ondorengoek ere, baldin eta zuzenbidearen arabera bananduta ez



badaude eta ondorengoak hogeita bat urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, menpekoak badira.

- b) Hamasei urte beteta edukitzea eta, hala badagokio, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina gainditu gabe izatea.
 - c) Behar den besteko gaitasun funtzionala edukitzea egitekoak betetzeko, eta ez izatea eginkizunak betetzea eragotz dezakeen gaixotasunik edo akats fisiko nahiz psikikorik.
 - d) Dagokion deialdi espezifikoan eskatzen den titulu ofiziala edo homologatua edukitzea, edo hura jaulkitzeko eskubideak ordaindu izana. Atzerriko tituluak badira, homologazioa egiaztatzen duen ziurtagiria beharko da.
 - e) Diziplina espediente bidez baztertuta ez egotea administrazio publiko, organo konstituzional edo autonomia erkidegoetako estatutuen arabera erakunderen batetik, ez eta epai bidez erabat edo bereziki ezgaituta ere enplegu edo kargu publikoak izateko edo funtzionarioen kidegora edo eskalara sartzeko. Beste estatu bateko nazionalitatea edukiz gero, ez egotea ezgaituta edo antzeko egoeran, ez eta bere estatuan enplegu publikora sartzeko modu berean eragotzen duen diziplina zigorraren baten edo antzekoren baten mende ere.
 - f) Indarreko araudiaren arabera ezgaitasun edo bateraezintasuneko lege kausaren batean sarturik ez izatea.
- 3.2 Oinarri espezifikoetan eskatzen diren beste betekizun guztiak, 10.3 eta 10.4.3 oinarrietan euskara eta informatika probetarako jasotzen den salbuespen kasuan izan ezik.

3.3 Desgaituentzat gordetako kupoa:

Desgaituentzat gordetako plazetarako lehiatzen diren pertsonen indarreko legeriaren arabera aitortua izan beharko dute ehuneko 33ko gradua edo handiagoa eskaerak egiteko epea amaitzen den egunean. Aitorpen hori egiaztatzeko, administrazio organo eskudunak (foru aldundietako edo autonomia erkidegoetako sail eskudunak edo IMSERSOk) jaulkitako ziurtagiri egokia aurkeztu beharko da eskaerak aurkezteko epearen barruan.

3.4 Barne sustapeneko sistema:

Barne sustapeneko plazetarako lehiatzen direnek, 3.1 oinarrian agertzen diren betekizun orokorrez gainera, beste hauek ere bete beharko dituzte:

- a) Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko A1 edo A2 azpitaldeko karrerako funtzionario izatea, A taldeko A1 azpitaldeko plazetara sartzeko.
- b) Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko C1 edo C2 azpitaldeko karrerako funtzionario izatea, C taldeko C1 azpitaldeko plazetara sartzeko.
- c) Beren eskalan gutxienez bi urteko antzintasuna edukitzea parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean.
- d) Jatorrizko eskalan zerbitzu aktiboan edo parekatuan, edo zerbitzu berezietan egotea.



Izangaiak barne sustapeneko sisteman parte hartzeko betekizunak betetzen ez baditu, ofizioz ulertuko da eskaeran egindako hautua dela sistema irekitik parte hartzea.

- 3.5 Deialdi espezifiko bakoitzean, izangaiek soilik sistema batetik parte hartu ahal izango dute, sistema irekitik edo barne sustapeneko, eta eskaeran jasota utzi beharko dute zeinetatik. Nahi den hautua berariaz jasota ez badago, edo deialdi bererako behar bezala formulatutako bi hautuak badaude jasota, ulertuko da izangaiek sistema libreko hautua egin duela.

Desgaituentzat gordetako plaza baterako lehiatzeko betekizunak betetzen dituztenek, desgaituentzat gordetako kupoaren bidez parte hartu nahi badute hautaketa prozesuan, hautu hori markatu beharko dute parte hartzeko eskaeran. Gainerako izangaiek hautatu duten sistemako txanda orokorretik hartuko dute parte.

4 EGOKITZAPENAK

- 4.1 Gainerako izangaien baldintza berberetan parte hartzen dutela ziurtatzeko, hautaketa prozesuetan probak egiteko beharrezkoak diren denboraren eta bitartekoen arazoizko egokitzapenak eta doikuntzak ezarriko dira hala eskatzen duten izangaientzat, baldin eta egin beharreko proba edo probak egiterakoan eragina badu.
- 4.2 Kasuan kasuko epaimahai kalifikatzaileak ebatziko du, desgaituek aurkeztutako agiriak aztertuta, probak egiteko beharrezkoak diren denboraren eta bitartekoen arazoizko egokitzapenak eta doikuntzak ezartzeko eskaeraren gainean.
- 4.3 Haurdun edo edoskitze egoeran daudenek egokitzapenak eskatu ahalko dituzte hori epaimahai kalifikatzaileari jakinarazita, dagokion proba egin baino bost egun lehenago behintzat.

5 ESKAERAK AURKEZTEA

5.1 Eskaerak aurkezteko epea eta modua:

- a) Oinarri espezifikoetan zehazten diren plazak hornitzeko hautaketa prozesuetan parte hartu nahi dutenek aurkeztu beharko dute eskaera Estatuko Aldizkari Ofizialean (EAO - BOE) deialdiaren laburpena argitaratu eta hurrengo hogeitun egun baliaduneko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
- b) Eskaerak Arabako Foru Aldundiko Enplegu Publikoaren Ataria (www.araba.eus/PortalEmpleo) baliatuz egingo dira. Eskaeran sartuta egongo da 5.5 idatz zatian aurreikusitako tasaren ordainketa telematikoa.

Salbuespenez, paper euskarriko eskaera eta tasaren ordain gutuna helbide honetan eskuratu ahal izango dira: Probintzia plaza, 14, 3.a - Gasteiz.

Aplikatzekoa izango da, halaber, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoaren administrazio prozedura erkidearenak, 16.4. artikuluan xedatutakoa.

- 5.2 Hautaprobetarako onartuak izateko eta haietan parte hartu ahal izateko, izangaiek eskaeraren atal guztiak bete beharko dituzte. Adierazi beharko dute betetzen dituztela eskatzen diren betekizun



guzti-guztiak, betiere aurkezteko epearen azken egunari erreparatuta, 10.3 eta 10.4.3 oinarrietan euskara eta informatika probetarako jasotzen den salbuespen kasuan izan ezik.

Horretarako, eskaerako atal egokietan adierazita egon beharko dira:

- a) Eskatzen diren datu pertsonalak.
 - b) Zein sistematan parte hartu nahi den: irekian edo barne sustapenekoan, oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera. Izangaiek soilik sistema batetik hartu ahal izango dute parte deialdi espezifiko bakoitzean.
 - c) Desgaituentzat gordetako kupoan parte hartzeko hautua, oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera, baldin eta izangaiek betetzen baditu pertsona horientzat gordetako plazarako lehiatzeko betekizunak eta hala nahi badu. Hautu hori egiten duten izangaiek ezingo dute parte hartu dagokion deialdi espezifikoko prozesu orokorretan, ez irekietan eta ez barne sustapenekoetan, 1.2. oinarriaren azken paragrafoan jasotakoaren kalterik gabe.
 - d) Zein plazatarako lehiatu nahi den.
 - e) Oposizio aldiko ariketak zein hizkuntza ofizialetan egin nahi diren, euskaraz ala gaztelaniaz.
 - f) Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko euskara ariketa egiteko hautua, eta ez da loteslea izango.
- 5.3 Desgaituek eskaerak aurkezteko epearen barruan aurkeztu beharko dute, Laneko Arriskuen Prebentzioko Zerbitzuan (Probintzia plaza, 14, Gasteiz), ezintasun gradua kalifikatzeko eskumena duen organo teknikoak egindako irizpen tekniko fakultatiboa, modu sinesgarrian frogatuz aitortutako ezintasun graduaren jatorrian dauden ezintasun iraunkorrak.

- 5.4 Datu pertsonalen babeserako indarrean dagoen legeria betez, hautaketa prozesuak kudeatzeko eskatzen diren datuak Giza Baliabideen Zerbitzuak kudeatzen duen “Enplegu Publikoaren Eskaintza” tratamendu jardueran sartuko dira, Arabako Foru Aldundiaren zerbitzuekin lankidetzan aritzeko pertsona hautagaien datuak kudeatzeko. Horiek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko, aurka egiteko, mugatzeko eta transferitzeko eskubidea erabiltzeko aukera izango dute erakunde horren Erregistro Bulegora zuzenduz, Probintzia plaza 5, 01001 PK, Gasteiz (Araba).

Hautaketa prozesuetan parte hartzen dutenek berariazko baimena ematen dute, kontrakoa adierazi ezean, beren datu pertsonalak oinarri hauetan eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan adierazitako moduan eta xederako tratatzeko, baita Arabako Foru Aldundiak euskara maila egiaztatzeko ere Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan, eta beste horrenbeste informatika ezagutzen ziurtagiritarako.

Izangaiek beren eskaeran adierazi beharko dute ea baimenik ematen duten beren identifikazio pertsonaleko datuak lagatzeko beste administrazio publiko batzuei, baina soilik erakunde horiek lan eskaintzak egin ahal diezazkien legez jasoriko moduetan.

Tratamenduaren arduraduna: Arabako Foru Aldundiaren Foru Gobernu kontseilua.

Tratamenduaren helburua eta aurreikusitako erabilerak: Langileak hautatzeko prozesuen kudeaketa eta jarraipena, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrak behar dituen zerbitzuen



beharrizanei erantzuteko, baita eskatzaileari horien garapenaren berri emateko ere; hain zuzen ere, parte hartzeko eskabideak kudeatzea, probak ezinduentzat egokitzeko eskaerak kudeatzea, onartuen eta baztertuen zerrendak, proben kalifikazioak eta merezimenduen balorazioak argitaratzea, hautaketa-prozesuekin lotutako erreklamazio eta errekursoak kudeatzea, eskatzaileek prozesuan ekarritako dokumentazioa kudeatzea, probetako asistentzia kontrolatzea, ziurtagiriak luzatzea, prozesuen datu historikoak kontsultatzea, azterketak eta estatistikak egitea, lan-poltsak kudeatzea.

Legitimazioa: Interesdunak emandako adostasuna.

Informazioaren hartzaileak: Datuen tratamendua Funtzio Publikoko Zuzendaritzak egitea aurreikusten da, kasuan kasuko lan-poltsak kudeatzeko eta langileen kudeaketa osoa burutzeko xedez. Aurreikusten da, halaber, datuak Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuei lagatzea, beren lan-poltsarik ez badute. Kasu honetan interesdunek adostasuna agertu beharko dute izena ematerakoan berriaz datuak laga daitezzen.

5.5 Azterketa eskubidearen tasak.

Hautaketa prozesuan parte hartu nahi dutenek tasa hauek ordaindu beharko dituzte eskaerak aurkezteko epearen barruan:

TALDEA/AZPITALDEA	KUOTA
A (A1)	30 euro
C (C1)	20 euro

Azterketa eskubidearen tasa ez da itzuliko eskatzaileari egoztekoak diren arrazoiengatik.

Tasa hori ordaintzetik salbuetsita egongo dira eskaera aurkezten den egunean:

- ehuneko 33ko ezintasuna edo handiagoa dutela egiaztatzen dutenak.
- enplegu eskatzaile gisa izena emanda egon direnak Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrera sartzeko eskabidearen data baino gutxienez hilabete lehenagotik. Ezingo dira salbuespen horretaz baliatu "enplegu hobekuntzaren" eskatzaile gisa izena emanda egon direnak, ez eta enplegu eskatzailearen prestazio ekonomikoak jasotzen ari direnak ere.

Salbuespenerako eskubidea dutenek egiaztari hauen jatorrizkoa edo kopia zigilatua aurkeztu beharko dituzte:

- Desgaituek: Desgaitasun ziurtagiria.
- Enplegu eskatzaileek: 1. enplegu eskatzaile gisa izena emanda egondako aldiak ziurtatzeko enplegu bulegoak (Lanbide) edo baliokideak egindako ziurtagiria. 2. Enplegu Zerbitzu Publikoaren ziurtagiria, zeinetan azaltzen baita ez dela jasotzen ari langabezia prestazio edo laguntzarik.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen aurkeztu beharko dira salbuespenak justifikatzeko agiriak, honela:



- Posta elektronikoaren bidez, honako helbide honetan: consultasofertasempleodfa@araba.eus.
- Arabako Foru Aldundiko Giza Baliabideen Zerbitzura bertara agertuz (Probintzia plaza, 14, 3. solairua, Gasteiz).

6. NOLA TRATATUKO DIREN JOKABIDE IRUZURGILEA ETA LEHIA DESLEIALA

Izangaiak, ez pertsonalki, ez hirugarrenen bidez, ezingo dira zuzendu Epaimahai Kalifikatzaileko kideengana, hautapen prozesuarekin lotutako ezeri buruz hitz egiteko. Hautapen prozesuaren inguruko zalantzak sortuz gero, idatziz planteatu behar zaizkio Epaimahai Kalifikatzaileari, eta honek, kide anitzeko organoa denez, dagokiona erabakiko du.

Epaimahaiak hautapen prozeduratik kanpo utzi ahal izango du probetako edozeinen garapen normala eragozten duen edo berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioekin bat leialtasunik gabe jokatzearagiten duen iruzurrezko edozein jarduera burutzen duen pertsona oro, jokaera hori jasota lagaz, dagokion bilkurako aktan.

Era berean, ez da onartuko hautapen prozesuko inolako probatan zehar dispositibo edo bitarteko elektronikorik edukitzea edo erabiltzea, tresna horiek lehen aipatutako printzipioak saihestu edo urratzeko erabil daitezkeenean.

Izangai batek arau horiek urratzen baditu, une horretan bertan geratuko da kasuan kasuko probatik zein hautapen prozesutik kanpo, eta, horrenbestez, ez da inola ere prozesu horretatik ateratzen den lan poltsan sartuko.

7. IZANGAIAK ONARTZEA. ERREKLAMAZIOAK

7.1 Behin eskaerak egiteko epea amaituta, eta gehienez ere hilabeteko epean, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuak foru agindu bat emango du, zeinaren bidez onetsiko baitira onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak 1.2 oinarrian aurreikusitako txanda bakoitzerako, baztertuen kasuan horretarako arrazoia adierazita. Zerrenda honetan sartuta egongo da ariketak Euskal Autonomia Erkidegoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi diren eta hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko proba egiteko hautua egin den. Foru agindu hori Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Baztertuek edo argitaratutako datuetan okerren bat hautematen dutenek hamar egun baldiodun izango dituzte, behin-behineko zerrendak Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik aurrera, erreklamazioak aurkezteko eta, hala badagokio, egin ahal izan diren okerrak zuzentzeko.

7.2 Erreklamazioak egiteko epea amaitu eta haiek ebatzi ostean, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuak beste foru agindu bat emango du, zeinaren bidez onetsiko baitira txanda bakoitzeko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak, behin-behineko zerrendetan jasotako datu bereberkin, eta Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

7.3 Foru agindu horiek Arabako Foru Aldundiaren Enplegu Atarian ere argitaratuko dira: (www.araba.eus/PortalEmpleo)"



7.4 Probak egiten diren egunean oraindik ebatzi gabe badaude onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onesteko foru aginduan prozesutik baztertuta agertu ziren izangaiek aurkeztutako errekursoak, eragindako pertsonen proba horiek egin ahal izango dituzte, baina ez dute baliorik izango errekurtsio horiek ezesten badira.

7.5 Edonola ere, interesdunek hautaprobetarako eskatzen diren betekizunak betetzen dituztela aitortzeko baldintza da haiek egiaztatzea 12. oinarriaren arabera aurkeztu behar diren agiriak aurkeztuta; agirien bidez egiaztatu ezean, interesdunak galdu egingo ditu hautaprobaren parte hartzeak ekar ditzakeen eskubide guztiak.

8. EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEAK

8.1 Izendapena:

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuaren foru agindu baten bidez izendatuko dira hautaprobak kalifikatuko dituzten epaimahaietako kideak. Izendapenak Arabako Lurralde Historikoa Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendekin batera.

8.2 Osaera:

Epaimahaiak lehendakari bat eta lau kide izango dituzte, bakoitza bere ordekoarekin, eta karrerako funtzionarioak izango dira. Kideetako bat idazkari izendatuko da.

Epaimahaietako kide izatea norberaren izenean izango da beti, eta inola ere ez beste inoren ordezkari gisa edo beste inoren kontura.

Epaimahaiak osatzean errespetatu egingo da espezialitatearen printzipioa, zeinaren arabera epaimahai bakoitzeko kideen erdiek, gutxienez, sartzeko eskatzen den jakintza arlo bereko titulu bat izan behar baitute, eta guztiek ikasketa maila bereko edo goragoko titulu bat.

Halaber, hura osatzean, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, 20.4. artikuluan jasoriko ordezkari orekatuaren printzipioa bermatuko da.

Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen ordezkari bat epaimahai kalifikatzaileetako kide izango da, baina soilik deialdi espezifiko bakoitzean eskatzen diren hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko probak egin eta ebaluatzeko.

Epaimahaiak hala komeni dela baderitzo, aholkulari espezialisten laguntza edukiko dute epaimahaikideek. Aholkulari horiek, organo kalifikatzaileari laguntzean, beren espezialitate teknikoetara mugatuko dira.

8.3 Abstentzioa eta errekusazioa:

Epaimahaikideek ez dute egiteko horretan jardungo baldin eta urriaren 1eko 40/2015 Legeak, sektore publikoaren araubide juridikoarenak, 23. artikuluan aipatutako egoeraren batean badaude, eta horren berri eman beharko diote Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuari.



Era berean, aurreko paragrafoan adierazitako egoeraren bat gertatzen bada, interesdunek epaimahaikideak errekusatu ahal izango dituzte, edozein unetan, bat etorri aipatutako lege testuaren 24. artikuluan ezarritakoarekin.

8.4 Epaimahaikideak oinarrietara lotzea:

Epaimahaia lotuta geratzen dira oinarri orokor hauetara eta kalifikatu beharreko probetako hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri espezifikoei.

8.5 Jarduteko arauak:

Epaimahaia, beren jardunean, urriaren 1eko 40/2015 Legeak, sektore publikoaren araubide juridikoarenak, 15. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako arauetara lotuko dira.

Edonola ere, hautaprobak hasi aurretik eta garaiz bilduko dira, lehendakariaren aginduz idazkariak bilera deia eginda, eta, behar bezala eratzeko, lehendakaria eta idazkaria, edo haien ordezkariak, eta kideen erdiak bildu behar dira, gutxienez.

Erabakiak bertaratu diren botoen gehiengoz hartuko dira. Epaimahaikide guztiek izango dute hitza eta botoa. Berdinketak lehendakariaren kalitate botoaren bidez ebatziko dira.

Lehendakaririk ez badago, kanpoan edo gaixorik badago, edo legezko beste arrazoiren bat badago, maila, antzinatea eta adin handiena duen epaimahaikideak ordeztuko du, betiere ordena horretan.

Idazkaririk ez badago, kanpoan edo gaixorik badago, edo legezko beste arrazoiren batek eragiten badio, epaimahaia gehiengoz erabakitzen duen kideak ordeztuko du.

8.6 Ahalmenak:

Epaimahaiek autonomia funtzional osoz jardungo dute, prozeduraren legezotasuna zaindiko dute eta haren objektibotasuna bermatuko dute.

Epaimahaiek ebatziko dute, desgaituek aurkeztutako agiriak aztertuta, 4. oinarrian jasotzen den moduan probak egiteko beharrezkoak diren denboraren eta bitartekoaren arrazoizko egokitzapenak eta doikuntzak ezartzeko eskaeraren gainean.

Halaber, eta ordenamendu juridikoarekin bat etorri, oinarri hauen aplikazioan sortzen diren zalantzak ebatziko dituzte, eta behar diren erabakiak hartuko dituzte deialdi bakoitza era egokian gauzatzeko, oinarrietan aurrekusi gabeko kasuetan hartu beharreko irizpideak ezarrita.

Hautaketa prozesuko edozein unetan eska dezake epaimahaia deialdian eskatzen diren betekizunak egiaztatzea, horretarako 10 egun balioduneko epea ezarrita, eta izangaietakoren batek betetzen ez baditu edo epearen barruan egiaztatzen ez baditu, aurrez interesdunari entzunaldia emanda, baztertzeko proposamena egingo dio Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuari, baztertzeko proposamenaren arrazoiak azaldu.



Epaimahaiek hartu beharreko neurriak hartuko dituzte oposizio aldiko ariketa idatzien edukiaren konfidentziasuna bermatzeko eta izangaien nortasuna jakin gabe zuzentzeko.

Ariketak modu mekanizatuan zuzentzen ez diren kasuetan, epaimahaiek baztertu egingo dituzte izangaiak baldin eta ariketa idatzietan beren nortasuna jakiteko aukera ematen duen marka edo zeinurik badago.

8.7 Egoitza:

Helbide honetara posta elektronikoz mezu bat bidalita egingo dira jakinarazpenak eta jakinaraziko dira gainerako gorabeherak: consultasofertasempleodfa@araba.eus.

8.8 Kalte-ordainak:

Epaimahaietara joateak eta haietan parte hartzeak eskubidea emango du Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuak, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzkoak, xedaturiko kalte-ordainak jasotzeko.

9. DEIALDIAK, JAKINARAZPENAK ETA INFORMAZIOA

9.1 Hautaprobak ez dira hasiko eskaerak aurkezteko epea amaitu eta bi hilabete baino lehenago.

9.2 10.2.1 oinarriaren arabera, oposizio aldia osatuko duten ariketetako lehenengoa, edo bakarra hala badagokio, egiteko, Arabako Lurralde Historikoa Aldizkari Ofizialean argitaratuko da deialdia. Hautaketa prozesuko gainerako komunikazio eta jakinarazpenak Interneteko helbide honetan argitaratuko dira: www.araba.eus/PortalEmpleo.

9.3 Deialdien informazio orokorra hemen dago, interesdunen eskura:

- Internet: www.araba.eus/PortalEmpleo
- Arabako Foru Aldundia
Probintzia plaza, 14

9.4 Izangaiak hala nahi badu, SMS eta/edo posta elektronikoko bidez jaso ahal izango du dagokion deialdiko ariketak egingo diren egunen eta lortutako emaitzak argitaratuko diren egunen gaineko informazioa, baldin eta hautu hori espresuki egin bada hautaketa prozesuan parte hartzeko aurkeztutako eskaeran, eskaera eredu ofizialean adierazitako moduan.

10. HAUTAKETA PROZEDURA

10.1 Sistema irekiaren eta barne sustapeneko sistemaren bidezko hautaketa prozedura oposizio-lehiaketa izango da, deialdi bakoitzeko oinarri espezifikoek ezartzen dutenaren arabera, eta praktika eta prestakuntza aldia egon daiteke hautaketa prozesuaren beste zati baten gisa.

10.2 Oposizio aldiko ariketak:

10.2.1 Oposizio aldiak deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan adierazten diren ariketak izango ditu.



- 10.2.2 Lehenengo ariketa, edo bakarra deialdiaren arabera, egiteko lekua, eguna eta ordua Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.
- 10.2.3 Txanda bakoitzeko izangaiei deialdi bakarra egingo zaie ariketa bakoitzerako. Aparteko egoerak justifikatu egin beharko dira, eta dagokion epaimahaiak ebaluatuko ditu. Identifikaziorako, izangaia probetara agiri hauetakoren batekin joango dira: NANA, pasaportea edo gidabaimena, edo agiri baliokidea atzerritarren kasuan.
- 10.2.4 Epaimahai kalifikatzaileek ezarriko dituzte izangaia desgaituek probak egiteko behar dituzten denboraren eta bitartekoaren egokitzapenak, baldin eta eskaeran eskatu badituzte eta, betiere, probaren edukia hutsaldu gabe eta eskatzen den gaitasun maila murriztu edo txikitu gabe.
- 10.2.5 Ariketa baten emaitzak argitaratzen direnetik hurrengo hasi arte gutxienez hirurogeita hamabi ordu igaro beharko dira, eta gehienez berrogeita bost egun baliodun.
- 10.2.6 Izangaia guztiek batera egin ezin ditzaketan ariketetan, jarduteko ordena Administrazio Publikoen Estatu Idazkaritzak egiten duen zozketaren arabera izango da, bat etorritik martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak, langileak Estatuaren Administrazio Orokorren zerbitzura sartzeko, Estatuaren Administrazio Orokorreko lanpostuak hornitzeko eta funtzionario zibilen sustapen profesionalerako Arautegi Orokorra onartzen duenak, 17. artikuluan ezarritakoarekin.
- Izangaien artean ez badago inor lehenengo abizena zozketa horretan atera den letratik hasten zaiona, jarduteko ordena segidako hurrengo letren arabera izango da, dagokion moduan.
- 10.2.7 Ariketa bakoitzeko behin-behineko emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, izangaiek hamar egun baliodun izango dituzte ariketa horren gainean egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko epaimahai kalifikatzaileari. Erreklamazioak egiteko epea amaitu eta, halakorik badago, aurkeztu direnak ebatzi ostean, epaimahaiak ariketa bakoitzeko behin betiko emaitzak argitaratzeko agindua emango du.
- 10.2.8 Deialdi bakoitzak bi gai zerrenda izango ditu: bata komuna, plazaren titulazio taldeari dagokiona, eta bestea espezifikoa, plazari berari dagokiona.
- 10.2.9 Barne sustapeneko sistematik lehiatzen direnak, betiere, salbuetsita geratuko dira deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoen arabera dagokion gai zerrendako zati komuneko ezagutzak baloratzeko diren probak egitetik.
- 10.3 Euskara:
- 10.3.1 Euskararen akreditazioa:
- Hizkuntza-eskakizunak egiaztatze azken eguna bat etorriko da hautaketa-prozesuetarako aurreikusitako euskara deialdi bateratuaren lehenengo probarekin.
- Arabako Foru Aldundian hizkuntza eskakizunen bat egiaztatuta dutenek ez dute berriz ere egiaztatu behar izango parte hartzen ari diren hautaketa prozesuan, ez eta Euskara Tituluen eta



Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta ageri direnean ere, eta horretarako, parte hartzaileak berariaz baimena emango dio Arabako Foru Aldundiari hori egiaztatu dezan erregistro horretan.

Edonola ere, erregistro horretan jasotzen ez den eta uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuaren arabera baliokidetu den beste edozein titulu edo ziurtagiri aurkeztu beharko da. Dekretu horren bidez, tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzeko eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua aldatu zen.

Baldin eta norbaitek hizkuntza eskakizunak aurkeztu nahi baditu apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babesean, zeinaren bidez euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartu eta hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez euskara maila egiaztatzenetik salbuesten baita, hari dagokion ikasketen ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Horretarako, hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko probak egin baino lehen, kasuan kasuko epaimahai kalifikatzaileak epe bat irekiko du izangaiek erregistro horretan jasotzen ez diren euskara titulu edo ziurtagiriak eta ikasketen ziurtagiri horiek aurkezteko.

10.3.2 Euskara ariketa:

Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko probak egingo dira, eta nahitaezkoak izango dira derrigortasun datadun hizkuntza eskakizuna duten plazetarako lehiatzen direnentzat eta borondatezkoak derrigortasun datarik gabeko hizkuntza eskakizuna dutenetarako lehiatzen direnentzat.

Epaimahai kalifikatzaileak erabakiko du zein unetan egingo den euskara ariketa, zeina betiere egingo baita oposizio aldiaren azken ariketaren behin betiko emaitzak argitaratzeko datatik hurbilen egiten den deialdi bateratuan.

Ariketaren behin-behineko emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek hamar egun baliodun izango dituzte euskara ariketaren gainean egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak egiteko epea amaitu eta, halakorik badago, aurkeztu direnak ebatzi ostean, epaimahaiak euskara ariketako behin betiko emaitzak argitaratzeko agindua emango du.

10.4 Lehiaketa aldia:

10.4.1 Lehiaketa aldia izangaiek alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzea izango da, eta haietako bakoitzari dagozkion puntuak esleituiko zaizkio, deialdian zehaztutako baremoaren arabera.

Oposizio aldiaren azken ariketaren behin betiko emaitzak argitaratu ostean, hamar egun balioduneko epea ezarriko da oinarri espezifikotik aipatzen diren merezimendu konputagarriak alegatu eta, hala badagokio, egiaztatzeko, euskara jakitearenak izan ezik; izan ere, hori egiaztatuko da 10.3 oinarrian jasotakoaren arabera.

Aurreko paragrafoan aipatutako agiriak hemen entregatu beharko dira: Giza Baliabideen Zerbitzua. Probintzia plaza, 14, 3. Solairua, Gasteiz.



Inolako kasutan ere ezingo dira baloratu behar bezala alegatu ez diren eta ezarritako epean egiaztatu ez diren merezimenduak.

Merezimenduak egiaztatzeko aurkezten diren agiriak jatorrizkoak edo behar bezala konpultsatutako kopiak izan beharko dira.

Igarotako denboraren arabera, urteka, sei hilekoka edo hilabeteka baloratzen diren merezimenduak alegatutako aldietako egunak batuta konputatuko dira eta, behin batura hori eginda, erreferentzia aldia baino frakzio txikiagoak alde batera utziko dira. Ondorio horietarako, urte gisa hartuko da 365 egun naturalen batura, sei hileko gisa 180 egun naturalen batura eta hilabete gisa 30 egun naturalen batura.

Lehiaketa aldiak ez du baztertzeko izaerarik izango eta bertan eskuratutako puntuak ezingo dira kontuan hartu oposizio aldiko probak gainditzeko.

- 10.4.2 Alde batera utzi gabe oinarri espezifikoei euskaraz eta informatika ezagutzak eskuratu diren unearan gainean ezarritakoa, gainerako merezimenduak soilik konputatuko dira eskaerak egiteko epeko azken egunari erreparatuta.

Interesdunek Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorrean egindako zerbitzuak alegatu egin beharko dituzte, baina ez dituzte egiaztatu beharko. Ofizioz konputatuko ditu administrazio horrek.

Gainerako administrazio publikoetan egindako zerbitzuak I. eranskina izeneko eremuan egiaztatu beharko dira, ekainaren 25eko 1461/1982 Errege Dekretuaren arabera, zeinaren bidez ematen baitira administrazio publikoan aurretiaz zerbitzuak eman izana aitortzen duen abenduaren 26ko 70/1978 Legea aplikatzeko arauak. Betiere xehatu egin beharko dira lan egindako aldiak, aldi horiek zein kidego edo eskala, azpieskala eta klase edo kategoriatan egin diren zehaztuta.

Kasuan kasuko epaimahai kalifikatzaileak informazio osagarria eskatu ahalko du emandako zerbitzuen ziurtagirian jasoriko datuei buruz.

Euskal Autonomia Erkidegoko foru eta toki administrazioan egindako zerbitzuak baliokide joko dira, uztailaren 30eko 208/1990 Dekretuak, euskal administrazio publikoetako kidego eta eskalen arteko baliokidetzak finkatzen duenak, ezarritako moduan, eta otsailaren 25eko 1/2004 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako kidegoak eta eskalak antolatzeak, xedatutakoaren kalterik gabe.

- 10.4.3 Deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoei hala jasota badago, eta ezartzen diren baremoen arabera, haietan finkatzen diren informatika ezagutzen mailak egiaztatzea merezimendu gisa baloratuko da, Informazio Gizartearen Euskadi Planak KZgune zentro publikoetan eskura jartzen dituen moduluak eskuratuta, IT Txartelaren ziurtagiri sistemaren edo beste erakunde publiko batek emandako ziurtagiri baliokidearen bitartez.

Beren balorazioa egiteko azken eguna bat etorriko da oposizio aldiko lehen ariketa, edo ariketa bakarra, hala badagokio, egiten den egunarekin.



10.5 Hautaketa prozesuaren azken kalifikazioa:

Oposizio aldiko ariketak deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoean xedatzen denaren arabera kalifikatuko dira.

Lehiaketa aldiko merezimenduen balorazioa deialdiaren oinarri espezifikoean jasotako baremoen arabera esleitutako puntuen batura izango da.

Hautaketa prozesuko azken kalifikazioa oposizio aldian eta lehiaketa aldian lortutako puntuen batura izango da.

Berdinketa gertatzen bada, lehenetsuna emango zaie emakumeei, emakumeak ehuneko 40 baino gutxiago diren eskala, azpieskala eta klaseetan, salbu eta beste izangaiengan, sexuagatik bereizkeriazkoak izan gabe, neurri hau ez aplikatzea bidezko egiten duen arrazoirik izanez gero, hala nola enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten beste gizatalde batzuetakoak izatea.

Aurreko lerroaldean ezarritakoa gorabehera, berdinketa hausteko lehenetsun ordena hurrenez hurren irizpide hauei jarraituz ezarriko da:

- 1) Oposizio aldian puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
- 2) Oposizio aldiko eduki praktikoa edo teoriko-praktikoa duten probetan puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
- 3) Oposizio aldiko lehenengo ariketan puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
- 4) Lehiaketa aldian puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
- 5) Lehenengo ariketan, edo ariketa bakarrean hala badagokio, ongi erantzundako galdera gehien izan duenaren alde.
- 6) Administrazio publikoetan lan egindako denbora luzeena egiaztatu duenaren alde, baldin eta denbora hori, deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoen arabera, lehiaketa aldian baloratu beharreko merezimendua bada.

Behin egiaztaturiko eta alegaturiko merezimenduen balorazioa eginda, epaimahaiak, puntuazio ordenaren arabera, zerrenda hauek egingo ditu:

- 1) Barne sustapeneko sistemako txanda orokorrean azken kalifikazioen zerrenda.
- 2) Sistema irekiko txanda orokorrean azken kalifikazioen zerrenda.
- 3) Sistema irekian desgaituentzat gordetako kupoan azken kalifikazioen zerrenda.
- 4) Barne sustapeneko sisteman desgaituentzat gordetako kupoan azken kalifikazioen zerrenda.



Azken kalifikazioen zerrenda horiek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek hamar egun baliodun izango dituzte soilik lehiaketa aldiaren gainean eta berdinketa irizpideen aplikazioaren gainean egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko epaimahai kalifikatzaileari.

11. LANGILEAK HAUTATZEA:

11.1 Erreklamazioak egiteko epea amaitu eta, halakorik badago, aurkeztu direnak ebatzi ostean, epaimahaiak hautatu eta eskaintzen diren lanpostuen zerrendak argitaratzeko agindua emango du, eta hamar egun balioduneko epea ezarriko du izangaiek adieraz dezaten nahi duten lehenespen ordena lanpostu horien artean.

Lehenespen ordena garaiz eta behar bezala adierazten ez duena ordena horretako azken lekura igaroko da.

11.2 Hamar egun balioduneko epe hori amaituta, epaimahaiak praktiketako funtzionarioen izendapen proposamena egingo du, zeinetan agertuko baita bakoitzari zer destino zehatz dagokion, irizpide hauen arabera: izangai bakoitzaren puntuazio ordena bere txandan (1.2 oinarrian aurreikusitakoaren kalterik gabe), eskaintako lanpostuen artean adierazitako lehentasun ordena eta lanposturako eskatzen diren betekizunak betetzea.

Proposamena egitean, aintzat hartu beharko da barne sustapeneko sistematik datozen izangai hautatuek lehentasuna izango dutela deialdiaren xede diren lanpostu hutsak betetzeko, sistema irekitik datozen izangaien aurretik.

Lanpostua eskuratzea errazteko, parte hartzeko edozein sistematan desgaituentzat gordetako kupoan hautatu diren izangaiek epaimahai kalifikatzaileari eska diezaiokete plazak aukeratzeko lehentasun ordena aldatzea, behar bezala egiaztatutako mendetasun pertsonala, mugitzeko zailtasuna edo antzeko arazoak argudiatuta. Epaimahaiak aldaketa hori egitea erabakiko du behar bezala arazoituta badago, eta mugatuko da lehentasun ordenan behar den gutxienerako aldaketa egitera desgaituak lanpostua eskuratu ahal izateko.

12. AGIRIAK AURKEZTEA

12.1 Praktiketako funtzionarioen izendapen proposamena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, izangaiek 20 egun balioduneko epea izango dituzte deialdian eskatzen diren gaitasun baldintzak eta betekizunak egiaztatzen dituzten agiriak aurkezteko, nola eta epaimahaiak ez dituen aurretik eskatu, 8.6 oinarrian xedatutakoaren arabera; hauek dira aurkeztu beharreko agiri horiek:

- a) NANaren fotokopia konpultsatua.
- b) Izangai atzerritarrek Arabako Foru Aldundiaren jakinarazpen bat jasoko dute, non zehaztuko baita, duten egoeraren arabera, zer agiri aurkeztu behar duten nahitaez.
- c) Eskala, azpieskala eta klase bakoitzera sartzeko eskatzen diren tituluaren fotokopia konpultsatua; deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetan adierazten dira titulu horiek.



- d) Zinpeko aitortpena edo hitz ematea, adieraziz ezen ez dagoela gaitasungabetua eginkizun publikoetan jarduteko, ez dela baztertua izan edozein administrazio publikoren zerbitzutik diziplina espediente baten bidez, eta ez dagoela sartuta abenduaren 26ko 53/1984 Legeak, administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunenak, jasotzen dituen eta ezgaitasuna edo bateraezintasuna dakarten egoeretako batean.
- e) Desgaituentzat gordetako plazetarako lehiatzen direnek, indarrean dagoen legeriaren arabera, ehuneko 33ko desgaitasun gradua edo handiagoa egiaztatu beharko dute administrazioko organo eskudunak (foru aldundietako edo autonomia erkidegoetako sail eskudunak edo IMSERSOK) jaulkitako ziurtagiri egokiaren bidez.
- f) Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek zinpeko aitortpena edo hitz ematea aurkeztu beharko dute, adieraziz ez daudela funtzio publikora sartzea eragozten duen diziplina zehapen edo kondena penal baten mende.

Era berean, egiaztatu beharko dute ez dutela gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik, oinarri hauen eta deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoaren arabera dagozkien eginkizunak betetzea eragozten duenik, eta onartu egin beharko dituzte Arabako Foru Aldundiak zehazten dituen zerbitzuetan egingo diren probak eta osasun azterketak. Desgaitu izaera duten izangaiek, orobat, eskatzen dituzten lanpostuetako berezko eginkizunak betetzeko gaitasun agiria lortu beharko dute, Arabako Foru Aldundiaren Laneko Arriskuen Prebentzioko Zerbitzuak emana.

12.2 Oinarri honen aurreko puntuen arabeko egiaztagiriak jatorrizkoak edo behar bezala konpultsatutako kopiak izan behar dira.

12.3 Agiri horiek aurkeztu ezina behar bezala justifikatuz gero, izangaiek zuzenbidean onartzen den edozein frogabideren bitartez egiaztatuta ahal izango du betetzen dituela eskatzen diren baldintzak.

12.4 Eskaintzak aurkezteko lekua:

Agiri horiek Arabako Foru Aldundiaren Giza Baliabideen Zerbitzuan aurkeztu beharko dira: Probinzia plaza, 14 - 3.a, Gasteiz (PK: 01001).

12.5 Agiriak ez aurkeztea:

Adierazitako epearen barruan, salbu eta ezinbesteko kasuetan, agiriak aurkezten ez dituztenak, edo haiek aztertzean agertzen bada ez dutela betetzen 3. oinarrian adierazitako betekizunetakoren bat, edo ez badute eginkizunak betetzeko behar den gaitasun funtzionala, ezin izango dira karrerako funtzionario izendatu, eta deuseztatuta geratuko dira beren jardun guztiak, eskabidean datu faltsuak emategatik legokiekkeen erantzukizunaren kalterik gabe.

Kasu horietan, errepikatu egingo dira 11. oinarrian eta hurrengoetan adierazitako urratsak, alde batera utzita aurreko paragrafoan adierazitako arrazoiengatik baztertu diren izangaiek. Hala ere, saihestu egingo dira aurreko beste batzuk errepikatzea diren jardunak, eta horregatik, 12. oinarrian adierazitako agiriak ez zaizkie eskatuko dagoeneko aurkeztu dituztenei, eta ez dituzte berriro egin beharko probak eta osasun azterketak dagoeneko gainditu dituztenek.



Arrazoi berberengatik beste norbait baztertzea gertatzen bada, prozesua errepikatu egingo da aurreko paragrafoan adierazitako moduan, eta horrela behin eta berriro, lortu arte hautatuetako inor ez baztertzea arrazoi horiengatik.

13. PRAKTIKA ETA PRESTAKUNTZA ALDIA

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuak foru agindua emango du praktiketako funtzionarioen izendapena onartzeko izangai bakoitzari dagokion lanpostuarekin.

Foru agindua Arabako Lurralde Historikoa Aldizkari Ofizialean eta Arabako Foru Aldundiaren Enplegu Atarian argitaratuko da: (www.araba.eus/PortalEmpleo).

Eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala egiaztatzeko probak eta osasun azterketak egiteko deialdiak banan-banan egingo dira.

Oro har, praktika aldia gehienez ere izango da:

- sei hilabetekoa A taldeko A1 azpitaldeko deialdiarako; edonola ere, lanpostuko benetako presentziako 398 ordu bete beharko dira gutxienez.
- lau hilabetekoa C taldeko C1 azpitaldeko deialdiarako; edonola ere, lanpostuko benetako presentziako 265 ordu bete beharko dira gutxienez.

Ondorio horietarako, lan orduetan egindako prestakuntza ikastaroak, baita euskara eskolak ere, benetan lan egindakotzat hartuko dira.

Hautaketa prozesuko beste aldi bat bezala praktika eta prestakuntza aldia ezarrita daukaten plaza bat baino gehiagotarako hautatuak izan diren izangaiek, horietako bat aukeratu beharko dute aldi hori hasi baino lehen. Egoera hori gertatzen bada, 12. oinarriaren azken atalean azaldutako moduan jokatu da.

Praktiketako funtzionario izendatzeko aurreikusten datan hautatua aldi baterako ezintasun egoeran edo amatasun edo aitatasun lizentziarekin badago, izendapena atzeratu egingo da medikuaren alta jaso arte edo lizentzia amaitu arte.

Praktikaldirako lortutako destinoak behin-behinekoak izango dira.

Praktika eta prestakuntza aldia ebaluatu eta kalifikatu egingo da, aldagai hauek baloratzuz:

- Egitekoak eta eginbeharrak betetzea.
- Lanaren kalitatea.
- Ikasteko jokoerak.
- Ekimena.
- Erantzukizuna eta egokitzea.
- Elkarlanerako jokoerak.
- Herritarrekiko eta lankideekiko harremanak.



Praktika eta prestakuntza aldia baloratzeko, ebaluazio batzorde bat eratuko da, lehendakari batez eta bi kidez osatua, guztiak ere karrerako funtzionarioak.

Ebaluazio batzordea honela eratuta egongo da:

- Lehendakaria: Giza Baliabideen Zerbitzuaren burua, edo berak eskuordetzen duen karrerako funtzionarioa.
- Bi kide, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorraren zerbitzura dauden karrerako funtzionarioak. Bi kideek administrazio horretako beste karrerako funtzionario batzuen esku utz ditzakete beren eginkizunak.

Kideetako batek idazkari gisa jardungo du.

Ebaluazio batzordearen osieran, ordezkaritza orekatua bermatuko da trebetasun, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen artean.

Ebaluazio batzordeak praktika eta prestakuntza aldia “Gai” edo “Ez gai” kalifikazioekin baloratuko du.

Praktika aldia amaitzerakoan, lanpostua atxikia dagoen unitate administratiboko arduradunak aldi horren gaineko ebaluazio bat egingo du, eta horren emaitza interesdunari jakinaraziko zaio, ezezkoa bada, eta baita ebaluazio batzordeari ere.

Ebaluazio batzordeak kasuan kasuko epaimahai kalifikatzaileari helaraziko dio praktika eta prestakuntza aldia gainditu duten izangaien zerrenda.

Epaimahai kalifikatzaileak Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuari helaraziko dio karrerako funtzionarioak izendatzeko proposamena.

Praktika eta prestakuntza aldia ez gainditzekotan, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuaren foru agindu arrazoitu baten bidez, izangaiak galdu egingo ditu karrerako funtzionario izendatua izateko eskubide guztiak.

14. KARRERAKO FUNTZIONARIOAK IZENDATZEA ETA LANPOSTUEZ JABETZEA

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuak, foru agindu baten bidez, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko eskala, azpieskala eta klaseetako karrerako funtzionarioak izendatuko ditu eta baita dagokien lanpostuaren atxikipena ere.

Izendapenak Arabako Lurralde Historikoa Aldizkari Ofizialean (www.araba.eus/PortalEmpleo) argitaratuko dira.

Izendatuek hilabeteko epean hartu behar dute jabetza karrerako funtzionario gisa, izendapena egiten duen foru agindua Arabako Lurralde Historikoa Aldizkari Ofizialean argitaratzen den



egunaren hurrengotik aurrera. Epe hori hamabost egun baliodunez luza daiteke, izendatuak hala eskatu eta arrazoi justifikatua badago.

Ezarritako epean lanpostua jabetzan hartzen ez dutenek, eta salbu eta ezinbesteko kasuetan, galdu egingo dituzte Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko funtzionario izaera eskuratzeko eskubideak. Halako kasuetan, baita hautatutako pertsonak beren izendapena baino lehen edo lanpostuaz jabetu baino lehen uko egiten badiete lanpostuei, edo baldin eta lanpostuaz jabetzerakoan lanpostua gordetzen ez den eszedentzia eskatzen badute, kasuan kasuko epaimahaiak beste behin baino ez du egingo praktiketako izendapen proposamen osagarri bat dagokien izangaientzat, betiere hautaketa prozesuko azken kalifikazioetako puntuazio ordenaren arabera.

15. DEIALDIAREN AURKA EGITEA

Interesdunek deialdiaren, oinarrien, haien ondoriozko administrazio egintza guztien eta epaimahaien jardunaren aurka egin dezakete, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, eta uztailaren 13ko 29/1988 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, jasotzen dituzten kasu eta eretan.

16. ALDI BATERAKO ENPLEGUAREN POLTSAK

Oposizio aldiko ariketak gaintu eta lanposturik eskuratu ez duten izangaiek dagozkien lan poltsak osatuko dituzte, zeinak erabiliko baitira aldi baterako langile beharrak asetzeko eta kudeatuko baitira Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko lan poltsen arautegian ezarritakoaren arabera.

AZKEN ARAUAK

Oinarri hauetan aurreikusi gabekoetan, hautaprobak lege-arau hauetan ezarritakoaren arabera egingo dira:

- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, onesten duena enplegu publikoaren oinarritzko estatutuaren testu bateratua.
- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, euskal funtzio publikoarena.
- 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, funtzio publikoa eraberritzeko neurriena.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, sektore publikoaren araubide juridikoarena.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Arautegia (EB).
- Langileak Estatuaren Administrazio Orokorren zerbitzura sartzeko, Estatuaren Administrazio Orokorreko lanpostuak hornitzeko eta funtzionario zibilen sustapen profesionalerako Arautegi Orokorra, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsia.
- Toki araubidean indarrean dauden lege xedapenen testu bateratua, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia.



- 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, toki administrazioako funtzionarioak hautatzeko prozeduraren gutxieneko arauari eta programei buruzkoa.
- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15koa, arautzen duena Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua.
- 10/1998 Foru Araua, martxoaren 31koa, Arabako Foru Administrazioan eta Arabako Lurralde Historikoan euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoa.
- 297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailetara egokitzen dituen.
- 47/2012 Dekretua, apirilaren 3koa, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzearena eta hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez euskara maila egiaztatzetik salbuestearena.
- 2271/2004 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, arautzen duena desgaituen enplegu publikorako sarrera eta haien lanpostuen hornidura.
- 1822/2006 Pre Agindua, ekainaren 9koa, irizpide orokorrak ezartzen dituen desgaituak enplegu publikora sartzeko hautaprobak denbora gehigarrien bidez egokitzeko.